

BIZKAITARRAI- BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz
www.euskerazaintza.org

343n. zenbakia

2008 zemendia



ILLE ONETAN EUSKAL ASTEA IZANGO DA



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

Euskalerrian euskeraz

E U S K E R A Z A L E A K

2008-2009 IKASTURTEA

BIZKAIERA 41. IKASTAROA IRU MAILA ETA ALKARRIZKETA

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA
EGUENETAN

Orduak: Goiz, arratsalde eta gabetan

Ordaña: 140 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - urrutizkiña 423 53 22 - Bilbao

Asierea: Urrillaren 6'an

41.º Curso de Euskera Bizkaino 3 niveles y conversación

Días: Lunes, Miércoles y viernes, o martes y jueves

Horas: Mañana, tarde y noche

Curso completo: 140 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2 - Teléfono 423 53 22 - Bilbao

Comienzo: 6 de octubre

“ONAINDIA`TAR AITA-SANTI” ETA -“OLAZAR`TAR MARTIN” GOGORATZEN

Bizitzan, sortzen dira gauza batzuk, nor-bera konturatu barik edo amesetan-be ez dogulako gura agertu daitezkan, agertzen diranak, eta len Aita-Santi Onaindia`ren Gazteiz`en izan bazan, egun oneitan Olazar eta Uribe`tar Martin`en eriotza Bilbao`n izan da.

Badakigu, gure bizitzak epe-aldikoak dirala, a-ta guzti baiña, ez gara konturatzen agertuko danik eta beti erdi-ustegabeen or agertzen jaku ordutsu, JAINKOA`k atek zabaltzen dabezenean BERA`k deialdia egiten dagoenerako.

Ez da Aita-Santi eta Martin`eri gertatu jakiena, batak biotzekoa emonda jakitun egoalako eta besteak osagillearen bidez jakin ebalako epe laburra eukala, nai-ta berak jakin ez noz izango ete-zan, jakitun agertu zanetik zenbat denbora egoera orreitan iraungo eben, nik oraiñ asmatzen dotenetik urte-bi luze inguru izanda.

Gure bizitza`ko gertakizunetan be alan agertzen dira eta batez be, Aita-Santi`gaz alkartzea, nik orren susmorik euki ez arren, iñok ez dauan gogoratzen uste lekutik agertzen diralako, niri sortu jatan-antzera.

1977`ko Urrilla`ren inguruan, Zornotza`ko E.A.J.`ren batzoki`an sarri egoten giñela, Goioaga`tar Txomin`ek Letra-ederrak (bellasartes) eginda daukanak, margo-erti baten zaletasunezko talde bat sortu gura eban eta arrasti baten mus kartetako jokoan ibili giñela, Arizmendiarieta`tar Patxi ta niri aurkeztu eus-kun berak euki eben asmoa.

On-artu gendun Txomiñ`en asmo ori eta batzoki`ko gela baten asi giñan gure alabakaz batera marrazten, domeketan Boroa ta Berna`goitiko bas-eliz`etara joan da, eguratsean (al aire libre) eurak leenengo marraztu gero margotzeko oldozmenarekin.

Baiña !! (eta emen asi zan bidea okertzen), goiz-baten nire emazte Lourdes`ek esan eustan,



zergaitik ez dozuz bion armariak margozten eta Barrenetxea`ren leiartegian agindu eskatza`ren ateko leiar`ean irarri edo ezarri dagiazan.

AITA-SANTI ONAINDIA`REN AGERPENA:

Eneban ziurtasunez jakin, gure armariak zelako irudiakaz eginda egon ziran eta Onaindia`tar Aita-Santi jakitunen-gana joan nintzan.

Armarri liburu orregaz ez eban atzemanik emoten, baten batek eskatuta aldiko emonda eukelako. Baiña, berak jakin ebalako, apaiz-batek egineko Atutxa`tarren armari-irudia eta leiñuz`ko zuaitz baten etorkizunezko izen abizenarekin margoztuta egoala eta Zornotza`ren Bernagoiti auzuneko baserri batera joan giñan ikustera.

Armarria`rena bai, baiña nire sendirik ez zan agertzen eta berandu egin jakun-lez. Berak, ordu onetan gure lekaidetxean ez dabe janaririk

NAPARROA

emoten, esan-da, Oba`ra joan giñan bazkalzera.

Bazkari luzea egin gendun, babarrunak, gatz-ozpiñak, ardo, aragi, gazta-barria, akaita, txola eta txokorra jan, edan eta erre-bitartean, gure errimiñeko mintzaldi luze orreitan euki gendun gaia (Euskalerrria`ren askatasunezko arazoa), biontzat atsegingarri izan zalako.

Ni erantzuten ibili nintzan bitartean, bera ez zan nekatzen itanduak egiten, ari batetik apur-apurka tiraka ibili bazan antzera eta arratsaldeko zortzirak inguru ziranean Larrea`ra eldu giñan.

– Berak / Gurdi`tik urten orduko: “Esan dozuzan guztiak, zergaitik ez dozuz idazten eta nik zuzenduta, Euskadi-aldizkarian argitaratu? – Nik / Baiña zeozer geiago ikasi bearko dot ez?/ Ori konponduko dogu !.

Idaz-lana aurkeztzeko eguna ta ordua ipini ondoren, beste itaun bat egin eban: Eta au noiz arte? Liburuak amaitu arte ! erantzun neutson agurtu`az batera.


Or! amaitu ziran nirentzat, sortu gendun marrazkilaritzazko talde eta margozteko ametsak. Ortik aurrera, idaz eta ikas-lanean buru-belarri sartuta egon nazelako.

Nik, itandu bat egiten neutsoenean, berak, Bizente Silio`ren liburu ederra, iru atal daukazenak eta Mundu`ko edestia ezin-bestean adi-erazten dauana`gandik asi ta, Luis Cuèllar Bssols eta J.M. Rovira Martinez`en Eraman-Onaren Sarrera (introducciòn ala filosofia), P. Gabino Marquez S.I. Ekindua`ren Eraman-Ona (filosofia moral), Walter Brugger S.I. Eraman-Ona`ren iztegia eta abar irakurteko emoten eustazan.

Ain-bat lan gaztekeraz-idatzita argitaratu genduzan E.A.J`ren Euskadi aldizkaria amaitu zan arte.

Ez giñan sekula asarratu eta illean baten opari-lez, ostera bat egiten gendun, danak erri-jakitazkoak izanez gain, Euskalerrriko lurraldeak ezagutzera.

Gurentzat, zelakoak izan ziran ama-zortzi urte areik?: Nirentzat batez-be, bizi guztia aldaztea. Ararte erdi-maillako jakintzan bizi banintzan, andik aurrera itandu egiten neutsoenean



ZERGAITIK? Berak, liburu bat emoten eustalako, benetako jakin-bide baten egokituta geratu nintzan.

Eta ararte, egizko bidea izan bazan-be, nire baitan ez dotelako zalantzarik on-artzen, ortik aurrera erabagi gogor-bat artuta: “Jakiñezko egi-bizi baten aurrera jarraitu dot”.

Esan bearrean nago, batzutan oso gogorra eta beste batzuetan latza izan arren, laguntza orreikaz erreztasun aundiz eroan dotela eta nire bizitza, baldintza orrean jarraitzaille izango dala.

1979`an Euskerazaintza, Kardaberaz`en baimenean sortu zan asieratik, Aita-Santi`gaz joaten nintzan batzar guztietara eta an ezagutu neban Olazar`tar Martin.



**OLAZAR ETA URIBE`TAR MARTI`N EN
AGERPENA:**

1996`an Otsaila`ren 11`garren egunean il zan Aita-Santi agurgarria eta Deba`n egiten genduzan batzarretan Latxaga (San Sebastian`tar Jose Mari) jauna izan zan leen alegindu zana nik euskeraz idazteko asi naiten. Eta enekiala esan neutsoenean, berak: "Konturatu-adi, Euskeraz idazten dozun itz-bakotzarekin, Euskalerrriaren etorkizunerako, oinkada aundi bat emotea dala" esan eustan.

Urrengo batzarrean, ez zan gertatu bardin Olazar`tar Martin`egaz batzarretik urten nebanean, onek txantxak, bel-durrezko-lotsak edo eta nagikeriak, ezertara-be ez ebalako ontzat artzen, Aita-Santi`ren antzera: "Zergaitik ez dozu Euskeraz idazten?". Bera`ri be, enekiala esan ondoren, erantzun zeatza emon eustan: "Ori, konponduko dogu!. Zuk idatzi bai ! eta nik zuzenduta ZER aldizkarian argitaratuko doguz".

Ortik aurrera, ardurazko artu-emon estuak euki dodaz Latxaga`rekin (San Sebastian`tar Jose Mari) Nafarroatik azteraldiko lenean eta idazten nebazanak Martin zuzendari.

Martin baiña, ez zan edozein gauzagaz, nai-ta gauza orreik garrantzi aundikoak izan egokitzen eta Euskalerrria`ren edestia Euskeraz idatzi bear nebala esan eustan ondore, or sartu genduzan al izan dogun egizko sakontasunean.



EUSKERAZAINTZA:

Euskerazaintza sortu zanean, ainbat ezberdiñeko eritzi`en aurka irasi zan. Ez! Euren arrokeria nagusi izan zalako, alako gauzarik JAINKOA elburu dala eta erriaren arazoakin biozminduaren sendimenduan egokituta ez dalako aldi-berean astirik egoten arrokerizko erazkeri orreitan ibilteko.

Ondo baiño obeto jakitun egon ziralako batu-a`gaz egingo zana. Euskereak asieratik eta jarraian ekarte eban sinismeneko sendotasunari, kalte aundiak egingo eutsezalako, Nortasunaren neurrizko-arloan berakada galantak sortuazota. Atzean datozenak NORTASUNDU egin bear dabena, Mundu onetan zeozer izatera eldu gura ba-dabe.

Nortasunezko arloa-gaitik berba egiten dogu-nean, Mundu onetako izatasunagaitik berba egiten dogu eta ori ez da zirtzilkerizko (naderia, cosa baladi) gauza baragarri bat.

Euskereak milla urte askotako etorkizunean, Mundu onen bizitzari, ezin besteko adi-erazi

argi ta zabal-bat emon eutson, etorkizunean sinis eta osasun aundiz agertu dana, gure arba-soak bere barneko gorputza, ulermenenaren zentzun aundiko ardurakaz osotu egin ebalako eta izatasunezko jaraipenaren elburuan ain trebe ta ardura aundian egin diran gauzarekin ezin lei jokatu alaikeriz.

Egia da, gaur Mundu onetako ulermena bakandutasunezko erreztasunean (simplificar en la desdogmatizaciòn globalizadora por no tener en cuenta el paso que debe imprimir a nuestras acciones la impresiòn enraizada en nosotros de SUS LEYES NATURALIZADAS) ezarri bear dala, bideak garbituz, azturazko-aurrerakuntzan argitasun geiagorekin ibili gaitazan .

Baiña, Euskeraren arazoa ez da ori !! Euskerea bera dalako Askatasunaren Demokrazizko zaindaria, beren gaztelua erri-gizartearen eskubideko arduran eginda dagoelako.

Etorkizun orregaz kezkatuta, Kardaberaz`en bazkunak Euskerazaintza baimendu eben eta ez ziran txatxetan ibilteko gizonak nik





ezagutu dodazan: “Jon, Dionisio ta Manu Oñatibia`tarrak, Akesolo`tar Lino, Arostegi`tar Luis, Augustin Zubikarai, Basarri, Arrinda`tar Anes, Latiegi`tar Bizente, San Sebastian`tar Jose Mari (Latxaga), Gaztañaga`tar Jesus, Zatarain`tar Ambrosio, Azurza`tar Jose Joakin, Zubiri`tar Iñaki, Solozabal`tar Paulin, Arzelus`tar Amale, Garzia ta Alkorta`tar Martin, Moraiz`tar Mirentxu, Garmendia`tar Juan Jose, Garmendia`tar Inazio, Salaberri`tar Demetrio, Murua`tar Jose Mari, Onaindia eta Bazeta`tar Aita-Santi eta Olazar ta Uribe`tar Martin eta orain ez nazenekin gogoratzen.

Euskalerrak zor aundiak daukazenakaz, euren bizitzak maitasunezko irakaskintzan, JAINKOA eta EUSKALERRIA`ri oso-osoan eskaiñi dautsoezelako.

OROIPENGARRIA:

Enaz sekula aaztuko ospe aundiko gizon-emakume onekin eta batez-be, maitasunezko adiskidetasun aundian euki dodazan Onaindia ta Baseta`tar Aita-Santi eta Olazar ta Uribe`tar Martin, badakitelako JAINKOA`ren zerutik laguntza emongo gaituela EUSKALERRIA`ren NORTASUNEZKO ZENTZU EDERRA BERREZKURATU DAGIGUN.

ATUTXA`tar PAUL

Zornotza`n 2.008`an Urrilla`ren 28`an

EUSKAL ASTEA

Urte guztietan lez, aurten be Euskalazaleak Alkartea'k, Euskal astea eratuko dau.

Ia beti astelenean, Asier Legarreta'k emon dau lenengo itzaldia, baña aurten Irun'en asi da lanean eta aste osoan an bertan geratzen da, astelene'tik bariku'ra, orregaitik aurten, barikuan izango da bere eguna.

Ba dakigu aurten, D. Martin gure artean ez dala izango, orduan bere ordeaz, Uriarte'tar anak emongo dau itzaldia "internet'eri buruz"

ORDUAN ASTEA, ORRELA GERATUKO DA:

2008-11-24	ATUTXA 'TAR PAUL 'EK- IZADIA ZAINDU
2008-11-25	URIARTE 'TAR ANA 'K – INTERNET
2008-11-26	ATUTXA TAR PAUL 'EK – IZADIA ZAINDU
2008-11-27	LEGARETA 'TAR ASIER- BERTSOLARITZA
2008-11-28	URIARTE 'TAR ANA 'K INTERNET

ESKERRIK ASKO ETORTZEA 'GAITIK
EUSKERAZALEAK

B

Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

IPUIN SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterillan.
- Sariak bost izango dira:

1. ^a 300,50 euro	4. ^a 120,20 euro
2. ^a 240,40 euro	5. ^a 60,10 euro
3. ^a 180,30 euro	
- Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea azillaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

ELKANO

Berrogeitairu urteko gizon eldua zan Ekano, Magallanes'en itsas ontzidian sartu zanean. Itsasoak autsiak ebazan ordurako Getari'ko seme onek.

Arrantzale seme, arrantzale izan zan berau be, gaztetan. Eta ur andiko arrantzale, Terranoba'ra joan oi zan makaulutan. Gero arrantzu orretan aurreratutako diruaz, itsasontzi eder bat erosi eban. Ontzi orregaz zer egingo..., ta merkataritzari ezetsiz, Gastelarrak eroien itsasgudatan sartu zan. An egoan bera Aprikako Oran, Bujia ta Tripoli itsas uri ederrak menperatuak izan ziranean.

Gero, "El Gran Capitan" deitutako gudalburuaren agindupean ibilli zan italiko gerratetan, bere itsasontzigaz beti. Azken baten, bere ontzi ta mutillak galdu, ta Magallanes'en txangoari lotu zan, ez diru ta ez lagun.



MAGALLANES'EN ATAKA

Ataka au topetan izen ebezan naiko lan. Magallanes'ek, berak baekiela aren bidea esan eutsen mutillai. Baiña, dana guzurra. Jo batera, jo bestera, ta dana alperrik. Bost ontzi eukazan beregaz Magallanes'ek, eta iru ontziko mariñalak asalatu egin yakozan.

Itz zuriz baretu ebazan buruzagiak. Baiña seskuetara ebazaneko, batzuk il, beste batzu ango lur izoztuetan itzi, eta katez lotuta euki ebazan gaiñerakoak ontzi ondatuak konpontzen. Azkeneko onein artean egoan "La Concepción" izeneko ontziburu zan Elkano be.

Ontziak konpondu, ta itsasora bezain laster, ekatx batek jo, ta sakabanatu ebazan ontzi guztiak.

Andik iru egunetara baretu zan itsasoa. Eta iru ontzi bakarrik eureganatu ebazan Magallane'ek. Urrengo egunean agertu ziran beste biak. Elkano etorren aurrelari alai eta poskor. Aurkitu barri eban Atlantik eta Pazifik itsasoak alkartzen ebazan zori-oneko ataka.

MOLUKAS'EN

Ez zan xamurra izan Pazifik itsaso barriko txangoa. Len, otz-bero larriak; ta sekulako gosetea, orain, Gosetea ta izurritea. Janezak sorturiko eskorbut izeneko izurrite edo gatxa etorri yaken, eta asko il ziran bidean. Urte terdi ondoren iritxi ziran Filipinas'tara.

Filipinas'en, ango basatiaz gerran asi zan Magallanes, eta arein eskuetan il zan. Elkano izendatu eben, orduan, mariñelak euren burutzat. Eta gerazen yakozan iru ontziak konpondu ondoren, Molukas deitutako ugartetara jo eban, zuzen-zuzen.

Ugarte oneik ziran txangoaren jomuga. Piperki, untze ta kanela onkailluen lurraldea zan. Ondo etorri zan bertoko basatiaz. Txarto, ostera, eure ontziagaz. "Victoria" eritxon ontzi bakarra, urrea baiño geiago balio eben, onkailluz goragiño bete, ta etxera abiatu zan.



ITXULERA

Indiako itsasotik abiatu zan, eta Aprikako sortaldera jo eban. Aprikari bira emonda, “Cabo Verde” izeneko ugartean geratu zan, jan eske. Portugaldarrena zan ugartea. Ea oneik ontzia jangaietz beteten ziarduela, bertan ekarren onkailluz oartu, ta atxillo artu nai eben Elkano.

Onek baiña, arraunai eragin, ta itsas zabalera jo eban. Alan bere, an geratu ziran betiko euren-tarik mutil batzu, Portugaldarreak atxituta.

Andik egun batzutara eldu zan, Sanlucar de Barrameda deitutako kaiara. Andik urtena zan, ain zuzen bere, 1519'garrenean, beste 237 lagunagaz. Eta iru urte buruan etorren 21 lagunagaz.

Sekulako ondo etorria egin eutsoen erriak eta erregek. Karlo I erregeak egin, batez bere. Eta txango luzearen zertxelada guztiak entzun ondoren, armari edo ezkutu bereizi au eskindu eutson:

Urrezko gaztelu bat eukan, goikaldean; onkaillu landaraz jantzitako landatxea, bekaldede-

an; lubira, goiko buruan; eta idakzi au, aren gerrian: “Primus circumdedisti me”, zuk emon daustazu lenengo itzuli osoa.

ITSASORA, BARRIRO

Molukas'ko onkaillu baiotsu orreik galdu nai ez, eta beste txango bat gertau eban erregek, zazpi itsasontzi ta 450 gizonagaz. Loaysa andikitar aberatsa aukeratu eban len agintari, eta gure Elkano aren urrengoa.

Lengo bide ta lengo ekatxak izan ebezen arakoan. Magallanes ataka igarotzean izan eben ekatxik gogorrena. Sekulako olatuk altxa ziran, bat-batean, ataka estuan, eta alboko atxetara jaurti ebazan ontzixka ariñak.

Doi-doi urten andik, gizonak akiturik, ontziak ondaturik, eta jangaiak galdurik. Laster sortu zan gosetea bere; eta eskorbut izurria, aren ondoren. Eta Loaysa agintaria bere geixotu zan, azken baten. Geixotu, ta andik egun batzutara il.

Elkano jarri zan, urren, itsasontzidiaren buruzagi. Egun gutxitarako, zoritxarrez. Andik laster au bere geixotu, ta arin egin eban onek bere azken gaizto. Eta ainbat maite izan ebazan ur aindi areik artu eben euren magalean Elkano andiaren gropua.

URKIOLA'K



UMEAREN JOLASAK

Leengo illean ikusten genduanez, "jolasa" umearen eskubide bat da. Ezin dautsogu eskubide au ukatu. Umea eskubide onen bearrizenean aurkitzen da. Jolasa beretzat bizia lez da.

Au oiñarriztat arturik, jolasaren garrantzia ulerterreza da. Ez da ain arrezza zein jolas emotea edo zelan jolastu jakitea, batez be leenengo iru urte t'erdirate. Urte oneik arte, umeak berak be ez dau seriotasun aundiz jolasten. Jostailu bat artu eta naiko errez izten dau bertan bera, beste edozeri eskua botatzeko. Baiña iru urte edo iru urte t'erditik aurrera ez dau orrela egiten: jolasa beretzat seriotasun aundieneko lana da.

JOLASA UMEAREN LANA

Adiñekoontzat, jolasa eta lana gauza ezbar-din bi dira. Ez dauka bata bestegaz zer ikusirik. Umearentzat ez da orrela: beretzat lan bakarra jolasa da. Gauza bakaoitza bere benetako izaeran aztertzen eta erabiltzen asten da. Une onetan kontu berezi bat izan bear dogu gauzen egiazko irudi bat lortzen laguntzeko. Sarritan onetaz oso gitxi arduratzen gara. umea bera be erdi josta-iltzat artzen dogu, eta bere eldutasunerako barik norberaren atsegiñeko jolasetan jarduntzen dogu. Au, beraz ez da bat be zuzena. Gizona bere lanetik biziko da, baiña umearen bizia eldu-tasunera eroango daben jolas orreitan dago.

BESTEAKAZ JOLASEAN

Umea, izatez, berekoia da. Baiña sasoi onetan besteekazko artuemonetan be asten da: besteekaz batera aldean jolastutzen asten da. Talde barruko jolas legeak oraindik ez dauz argi eta garbi ikusiko, baiña ulertzen asten da. Sasoi ederra, beraz, gizarte barruan ain bearrezko dogun alkarrenganako abegi ona ireksten joatzeko.

Irekaskintza au, bear bada, eskolaurreko ikastetxeetan naiko errez emoten jake, egun osoan edo geienean taldean aurkitzen diran ezker. Baiña urte orreitan etxean geratzen diranak kontu apur bat izan bearra dabe, beste

ume batzuekaz ibiltzen eta bizitzen ikasi dagine.

SEME ZAARRENAK ETA SEME BAKARRAK

Taldeko jolasetarako joera ez da neurri bardiñean ume guztiengan agertzen. Naiz eta iru urte t'erditik bost urte t'erdira bitartean taldeko jolasetan jardun, batzuk besteak baiño atzera-tuagoak izaten dira onetan be. Ona emen kasu bi: seme zaarrenak eta seme bakarrak.

JOSU LEGARRETA

UDABARRI

Udabarri, udabarri
zu eltzean gauza danak bizirik
Zelaietan bedar lorak
usain ta guritasunes beterik
Zugatz danak orri barriz
bertan txoriak badabe kantarik
Mendietan ardialdrak
euren arte bildotzak bai triskarik
Bideetan maitailleak
bagi argiz irri barrez maiterik
Agura ta atso zarrak
etxe ondoko euskitara pozpozik
Dana bizi, dana alai
badau eder udabarririk zoririk
Iraun gugaz aro alai
danetan ederren orrek lirañik
Gora aintza zero goitan
Jainko guztiz altsuari bioztik

GALLASTEGI'TAR KENEDI'K

ERLEGINTZA BIZKAIA'N

Erleak Bizkaia'ñ gizakiak baiño millak urteak lenagokoak dira eta gizakia etorrenerako giroa gertatzen eben.

Emen leku ona euken: langintza edo industria bagerik, aitz-zuloak ugari, lorategian edonon... Toki onak ziran gaurko Morga, Orozko, Zeanuri, Dima, Otxandio, Artzentales, Karrantza...

Antxiñako Euskalerria'ñ erleak ospetsuak ziran eta ontzat eukezan, gaur ia aitzuta dukaguz, bear ba'da giroa zikindu dalako, baserriak urritu diralako, langintza barriak sortu diralako...

Lenago ta orain euren emaitzik onenak ezta ta argizaia dira.

Ona emen ori ziurtatzeko Axular'en berbak erleak sarritan aitatzen dauzan Gero bere liburuan:

“Erleak hain gauza ttipiak eta flakoak. Bethatzen du mundua eztiz eztitzeko eta ezkoz argitzeko”

Mesdegilleak dira erleak lurgintzarako eta izadia zaintzeko batez be landarak ernaltzeko, polena edo lora-autsa tokiz aldatuta, zelaietan, basoetan, landaretan, soloetan, baratzetan Or amar bidar onura geiago dauke.

Estia janari lez geiago artuko ba'litiz, gaiso gitxiago legoke gure artean, batez be urdailletan, kirioetan, buruko garunetan....”Jalea real”ek gaiso asko osatzen dauz eta gaurko Europa Batuan urtean 100 pezeta emoten ziran erleak lanean eukitearren. Bizkaia'ñ batez be indartu bear dogu erlauntzen ugaritasuna.

1.-ERLEA.

Gorputz uletsua dauka, leoi-margoa, lau ego eta emeak sabelean eztena (agijon) eta agoan lora-autsa batzeko min bat, onegaz egiten dabez ezta ta argizaia.

Alkar-lana egiten bizi dira moltzo aundietan: Erregiña bat, erle-mandoak eundaka,, geienez 100 000 langille.

Izadian dagozanean, zuloetan bizi dira (zugatzetan naiz ormetan naiz aitzetan), baiña

etxeetan dagozenak erle-ontzietan.

Erregiñeak arrautzak egiten dauz, erle-mandoak (zanganoak) ernalduak izanda. Langilleen lanak oneik dira: Janariak ekarri, abia gertatu, larbak (eltxarrak) zaindu, airea girotu,, euren etxeak egin...

Zein lan egin jakiteko, euren adiña artzen dabe kontuan: Gazteak sei egunean etxeko lana egiten dabe, gero airea girotu. Zarrak dira gozokia edo nektar eta lora-autsa ekarten dabenak.

Erregiñeak beste biren besteko luzerea dauka eta onen lan bakarra erle barriak sortzea da: 5 000 arrautza egiten dauz maiatzetik agustura. Erregiña bagerik ezin dira luzaro bizi. Olakoetan 3 edo 4 arrautza aukeratzen dabez eta euretatik bat erregiña izateko eta sortzen danean “jalea real” emoten dautsoe. Amasei egun barru erregiña osotuta agertzen da bere gelatik.

Erregiñeak ezten bereizia dauka, baiña iñoz ez dau ezten ori sartzen, beste erregiña bategaz burrukan egiteko ez ba'da. Bost edo sei urteko bizia dauka, baiña azkenerantza arrautza gitxiago egiten dau eta aldatu egin bear da. Gogor agintzen dautse erle lan- gilleai, 1º) beragaz bat izateko, 2n.) Erregiña leku barririk ez egiteko. 3n.) Arrautza-lekuak larregi ez aunditzeko eta 4n.) sasoiz gelak gertatzeko.

Erle-mandoak ez dauke beste zeregiñik erregiña ernaltzea baiño eta lagilleak emon bear dautsee janaria eurak ez dakielako egiten. Udabarrian eta udan erleen ezta jaten dabe eta iru illebeteko bizia baiño ez dauke. Erleak eurak ateraten dabez ontzitik kanpora il daitezkan udagoiengan.

Erleak 60 edo 65 egun baiño ez dira bizi eta lan asko egiten dabe nektar eta lora-autsa edo polena ekarten eta ura billatzen, gero argizaia egiten dabe ezti-tokiak egiteko, oneik (sei zokoak guztiak) eta or izten dabe ezta, egiten dabenean. Ori egiteko arrigarrero gairik gitxien bear dauan eta ezirik geien artzen dauan lekua da egiten dabena. Jakituri aundia dauke orretarako.

Erlontzia beti eukiten dabe garbi-garbi eta inguruan airea beti garbia eta ozkirria, bear dan otz-beroa ondo zainduta.

Kanpotik areriorik etorri ez daiten, ondo zaintzen dabe ontzia eta iñor etorriko ba' litz gogor erasoten dautsoe.

Erleak pik egiten dauskunean min egiten dausku eta aunditua sortu be bai batzutan eta kalte aundiagoak be egin leikeez. Ainbat lasterren eztena atera egin bear da, baiña gaiñean ikuturik egin bagerik, alboetatik sakatuta. Gero, al ba'da, amoniakoagaz iguzi.

Batzutan pika ori ona izaten da neuralgiak, unoreak, ziatika eta muskuluak obetzeko edo osatzeko.

2.-ERLAUNTZAK

Etxe-inguruko toki egoki baten ipiñi bear dira:lora-auts asko dagon lekuan esaterako.

Gaur ontzi onei barruan laukiak ipinten jakez panalak gertatu, gero errezago eurak eratzeko eran, orrelan argizai eta ezti geiago egin dagien.

Erleakaz lan egiteko, aurpegiko sarea bear da,esku-zorroak (guanteak) keea egiteko erea, eskudillea eta aizto bat.

3.-ERLEEN GAIK.

Landarak emoten dautsena artzen dabe: nekatar,lora-autsa.... eta ura bear dabe. Ondoan

ipiñi aiztu bagerik. Uragaz janariak bigundu egiten dabez larba edo eltxarrentzat eta erle barrientzat.

Propoleoa be landaretan aurkitzen dabe, piñuetan eta odoldietan, eta ori artzen dabe porlanaren atzera ormak-eta egiteko.

Lora-autsa: Lorearen gai arra da au eta garautxu txikiak dira. Loretan errez aurkitzen dabe (Altzetan,urretxetan,kuietan, artoan, eguzki-loretan, arbietan, artean,kerizean,iñarretan...)

Negu-azkenean eta udabarrian batzen dabe, goizeko amarrak aurrean. Erleen ogia dala dirudi auts orrek. Erleak lora-auts gitxi ba'dauka kaltegarria da, larregi eukitea be bai.

Nektar edo ezikia azukeradun isurkia da. Larregi ez dabe bear.

4.-ERLEEN ARERIOAK.

Neguan: Saguak zapuztuten dabez erlontziak. Muzkerrak eta elaiak be bai, aramuak, libelulak eta kurebiok kalte-egille dira.

Udabarrian: Zetonia edo ega-gogorak sartzten jakez barrura eta argizaia ta eztia jaten duatseez.

Udan esfinjeak jaten dautse eztia.

Erleen zorriak kalte aundiak egiten dautsez eta erlontzi osoa gelditu be egin leikee. Sarritan erregiñearen gaiñean esartzen dira, 40 be bai.

Sitsa: Kalte aundiak egiten dautsez. Orrein aurka gaiak dagoz. Eta erleak ontzian sartu orduko erabilli bear dira.





6.-BOST AOLKU.

- 1.-Erregiñak eta ezti-lekuak ez aldatu bear danean baiño.
- 2.-Erregiñea aldatzeko biderik errezena artu.
- 3.-Ontzi bakoitzean amar ezti-leku baiño geiago ez ipiñi.
- 4.-Ezti-leku utsak goian ipiñi, bestea beian.
- 5.-Neguan ezti-leku utsak ontziaren gaiñean itzi. Erleak zainduko dabez

7.-AZKENA:

Bizkaia'n urtean 18 000 k ezti eta tone bat argizai egiten dira eta dana saldu ezkeron 52 000 000 pezeta balio dabez. Irabazirik geien Arratian eta Enkarterrian dauke.

Maiatzeko gaitxa: Urte ezoetan agertzen da eta egaz egin-eziñik geratzen dira erleak, lora-atsen sasoian!

Erle-narra: Au da geien agertzen dana. Este gorrira sartzen jake piztitxu au.

Lokea: Larba edo eltxarretara sartzen da eta gero zabaldu.

Mikosis: eltxarretara sartzen dan ziza bat da.

8.-OAR BAT:

Jakakortajarena Tolosa'ko Berastegikoa zan abadea erbesteratu egin eben guda-aldian eta Argentina'ra joan zan. Erri txiki baten erlegintzara sartu zan eta erri osoa lan orretara sartu eta aberastu egin eban. Liburu eder bi idatzi ebazan emen aztertu dogun gai oneri buruz.

5.-TOKIZ ALDATZEA.

Erlauntzak dagozen lekutik 10 edo 20 edo 100 km.'ra aldatu bear izaten dira, esaterako lora-atsa amaitu dalako edo etxeak egin diralako eta ezti geiago artzeko beste leku batera eroan bear izaten dira. 1/6'ek egiten dabe ori Bizkaia'n. Gabean edo goizaldean egin bear da, erleak lo dagozan artean, baiña toki barrian gaiso barriak aurkitzen dabez sarritan

Aldaketa ori egiteko, keea bota, kamioira eroan, barriro keetu eta gabaz eldu lekura. Gero ipiñi leku barrian. Erle asko itxartuta kanpoan agetuko jakuz.

OLAZAR'tar Martin'ek



GALLURRA

Mendiaren gaña amets egin dot,
 Arranoak dabiltz goian
 Lurra, zugatz, gorago arkaitzak...
 Egaztu ba'nei ganian.

Euzkadiko lurraren ederra...!
 gallurretan, barriz, ames...
 Elkarri eupaka dagoz gañak.
 gorantz eiteko joranez.

Mendi barnean jaio nintzan,
 ama lurraren oiñian,
 beti, eguzki billa nenbillen
 egun sentia zanian.

euskal baratzak, euskal mendiak,
 maitatu alan nenkusan;
 Euzkadiko edertasunean
 nere gogoia batu zan.

Lur, solo, ibaiak eder ziran,
 dardar negian bidean'
 noiz, elduko gain argira
 eguzkiaren antzean.

Ibai ondoan, sarri, enbata,
 Ni a urratu ezinik.
 Beti gañera igoteko garrez
 euskal lurrez bat eginik.

Mendi egalez lañoak narraz,
 indarka nabil uxatzen...
 biotz garrak ez dau nai ikusi
 aritz lerdenik zapaltzen.

Negua da, oraindik, euritan.
 Narras-marras denporala.
 Gaillurrera igon nai mutillak
 ta uretik dator kresala.

Indarka dabil nere gogoia
 laño artean gora,
 mendi gaña eguzkitan dago,
 poza datorkit gogora.

Nere gaba ta nere goiza
 egunsentian argitu...
 illuna joan, lañoak urratuz
 olermena indarbarritu.

Aurrean dakuts mendi gallurra
 lur maitasun, eriotan,
 ain zara eder Euskalerrria
 garrezko zorabiotan.

Mendi gañean zelaia dago,
 egazka doa aizea,
 urregorritzko argia, goxo,
 gogoia daukat ernea.

Euzkadi zakuts olermenetan
 zeruaren garraziaz,
 Aberririk ederrena dago
 maite miñaren graziaz.

Eguzkiak urrea dario,
 izadi oro argitan,
 gora goraka dabil gogoia
 olerkiaren bizitan.

Lañoak, berez, deuseztu dituk
 eguzkia etorkeran,
 esna adi gogoaren barrena,
 olermena biztukeran.

Geiago ez dok lorik egingo
 olerkiaren sormena,
 ederregia duk izadia
 geldizteko oermenena.

Mendi gaña maitagarria duk
 olerki gallur bezela,
 guztia dago urre gorritan
 argia irunzten dabela.

Nere olermen, eder-zalea,
 ots egiok argiari,
 beti, mendi gañez bizitzeko
 ots, maite-min ederrari.

PAULIN

GAZTEEN ESKUBIDEAK

GAZTEAK AZTERTZEN

Sarritan entzuten da, gaurko gaztediagaz ezin leitekela inora joan.

Daña dala eskubideak eskatzea, baña ardurak artu barik.

Orain arte egindakoa txarlo dagoala esaten dabela, baña bide barririk erakutsi barik.

Gizadi zarra dañ a apurtu gurean dagozala, baña ez dakiela zelan beste bat jaso.

SÉNECA'REN AZTERPENA

Ez da gaurkoa. Orain bi milla urte Seneka'k esan ei eban, orduko gaztedi letsabakoagaz ez egoala zer egiñik.

Euren norberekeria agertzen eben edonun, gurasoai eutsen itzal edo errespetu eza, dana baten esateko, gaztedi galdu bat ei zan.

ELDUAK ERRUDUN?

Dana egia ete da ba? Orren besteko gaiztoak ete dira euren jokabideetan?

Ez ete dago errurik gugan, gu eldu ta geure burua zentzunduntzat daukagunongan?

Guk geuk be. baten baño sarrigo esan doguz orrelako astakeriak, baña baita be iñoiz damutu.

EKINTZA BAT

Oraindik asko ez dala, gazte talde batek (amairu amalau urtetik amaseira arte) urrera-tu ta ba-diñotso Eleizako arduradun taldeari. –Biarko jaia oso ederra da. Ezin geinke guk parte artu bere gertakizunean, kide izan ekintza orretan?

Lenengo erantzuna arrituta gelditurik. –Erantzungo jatzue.

Gero arduradunen arteko eztabaidea. Zer itxi

leikioe egiten? Ezer ba-dakie ba? Orra or non elduen arrokeria agertzen zan

Ez dogu esango gaztediaren aurka, baña oneik zerbait egin gura dauanean. –Zelan egin ba-dakie ba?

TXALOAK

Azken baten poz pozik artzekoa zalá gazteen eskari ori ta Eleizkizunak euran eskuetan itxiteko erabagi zan.

Zer urten ebala usté dozue?

Nastakeriaren bat? Eleiza Amak onartu ezin leikean aparteko zerbait? Bai zera.

Eleizatik urtetan eban lagundiak iñoiz batió politagoa izan zala, ta zeregin ortan ebiltzan gizon-emakumeak txalolu egin bear dirala.

NORI

Baña txalotu zergaitik? erantzun geuntson bat baño geiagori.

Ez da elduen lana izan, gaztetxuena baño. Eurak izan dira arduradunak eta gañera arduradun apalak, ze geien baten guk, geure eskuetan ipinten dauskunean zerbait egiteko, geure erara betetzen dogu zeregin ori, baña gazte areik eskubide osoak emon jakezenez, arrotu barik, apaltasunean, elduen eritxie bearko zala eurak ez jakitun ziran arloetan eta euren laguntzaren zain egozala.

Zorionez, gazteen ekintzan sartu barik, euren askatasuna zirikindu barik, eskatzen ebezan azalpenai erantzun jaken, eta orra or non iñoiz baño jai politagoa lortu.

Zer esan gura dogun onegaz?

UTSAK

Gure gazteak utsak izango dituela euren ekintzan, baña nork ez?

Eta gañera, ez dala beti euren errua.

Zerbait egiteko asmoan dagozanean, itzi egin bear dautsegula, gure eritxi garbia azalduaz, ori bai, baña euren ekintzan sartu barik, laguntza eskatzen ez ba-dabe; ez dauke zergaitik geure erara gauzak egin eta.

JAZOERA BAT

Gogoratzen gara oraindik, gu gazte giñala Don Juan Agirre jakintsuak, gure Txanburu edo Parroko zanak emon euskun ikasgaia.

Diru barik gengoan eta jai bat gertau bear.

Zer egin? Don Juan'en baietza lortu, berak ain maite eban ezki (tiloa) ela Eleizaren aldamenean egoana botatzeko, ta andik ataratako diruakaz jaia aurrera eroan.

Egin genduan gurea ta laster egoan zugatz ori ankaaz goia eta salgai be bai.

Zoritxarrez mota atako zugatzak baliorik ez.

Burua makurturik Don Juan'egana eldu ta lotsatuta, ba genkian zenbat maite eban eta, gure zoritxara agertu.

ZERGAITIK?

Don Juan'ek irribarrez, ba-ekiala berak orrelako zugatzak salgairik ez eukana, ta gure arritasuna ikusirik jarraitu eban:

– Zelan esango neuntzuen ba botatzea alpe-
rrikoa zanik?

Nik ain maite nebala jakiñik, ostopoak ipinten nengoala usteko zenduen, neure norberekeriagaitik gelditu zala jaia ospatu barik.

EKINTZA AURRERA

Jazoera onek erakutsiko dautzue, gogoak bakarrik ez dala naikoa, egin baño len gauzak



ondo ausnartu bear dirala, ta oker urtetzen diranean, aurpegia emoten jakin bear dozuela.

Jai barik gelditu giñala usté dozue? Bai zera. Olako Apaiza gure alboan dogula? Ori asma-tzea be... Jo emen, eskatu an. Jai arek bere garaipena ezagutu eban.

ATXUTEGI'tar Bitor



ON FAKUNDOREN ERBIA

On Fakundo erri txiki bateko abadea zan. Gizon ona. Iñun gizon onik ba da. Asko maite eben erritarrak. Beti eukan irribarre espanetan, beti agurrik zintzo ta beroena, aberats zein txiro guztientzat. Edozein mesede eskatu leikioen erritarrak, egingo eutsen da. Esku-zabala ta beargin utsa zan. On Fakundo eiztari-zalea zan ta egunero urteten eban, bere txakur biak eta eiz-izkilluagaz. Otartetatik erbia atara, tontortxu baten aurrera artu erbiari, ta plun.... bota danbada bat eta erbia ilda itxi, ori zan On Fakundo´rentzat ludiko olgetarik atsegingarriena. Ez uste izan eiztari ona zan. Amaikatxo erbi-usain ba eukan abadeareneko sartenak. Ondo ekian mendialdeko Patxo´k.

Ipuiñeko arratsalde aretan, nekatuta egoan On Fakundo ta ez zan joan eiztara. Otoi liburua besapean artuta, inguruko solo artetik ibillaldi bat egiteko asmoz urten eban.

Arratsalde ona, Jauna. Agurtzen eben solotetan ebiltzanak eta on Fakundo´k agurrik zintzoenagaz erantsuten eutsen. Mendi aldeko Patxo´ren soloak ikusi bear ebazala emon eutson buruak. Ganera, Patxo´ren solo-lan-detan erbi asko ebillen ta ba leitekean arri edo sokillenATEGAZ erbiren bat afarirako eskuratzeko. Geldiro-geldiro, noizean bein atsedean apur bat artu ta otoiak egiñez, eldu zan Patxo´ren lurraldeetara. Amaikatxo bider damutu jakon eiza-izkillua ez ekartea. Upielako erbiak ez ebazan ba atara ondo-ondotxutik?. Bai zera sokillekaz il. Guztiak egin eutsoen iges. Ba eroan samin bat Patxo´k solo egal baten aurkitu zanean!

Erbi asko , On Fakundo? Esan eutson Patxo´k.

Ez naz erbitan etorri, baña ederrak ikusi dodaz landa orretan, esan eban abadea´k.

Ikusi, ta atrapau ez? Diñotso Patxo´k.

Al izan ba´neu...Nire sokillei barre eginda iges egin dauste barrabanok, Patxo, ezingo dautsut gaur gabeen erbi-afarira deitu.

Erbirik ez daukazulako ez da izango behintzat, jauna.

Iñotson Patxo´k.

Ez diñautsut ba, garaurik be ez darodala gaur nire etxera, patxo?.

Eta nik bialdu dautsudana gaur goizean?. Diño Patxo´k.

Goizean bialdu? . Ez nekian ezer, esan eban abadeak.

Alantxe da bai, ederragorik ez dot aspaldion ikusi jarraitu eban patxo´k.

Ba nekian biotz onekoa zarana. Lagundu gura ba daustazu etorri zaitez gaur gabeen nire etxera. Bion artean jango dogu, diñotso On Fakundo´k.

Pozik lagunduko neuskizu, baña ondo dakizu baserrian lan asko dagola beti. Neure osasunerako be jan dagizula, On Fakundo. Ia bestetxu bat noiz bialdu al dautsudan.

Urrengoa neuk, Patxo, urrengoa neuk bialduko dautsut eizara natorrenean.

Poz bat eroan On Fakundo´k illuntze aretan sukaldera.

Ama gaur afari ona , ez? Esan eutson On Fakundo´k bere amari

Bai, seme, beti lez, erantsun eutson ama´k.

Baña abadea´k ez eban jan gau aretan erbirik.

Urrengo bazkarirako itziko eban ama´k , esan eban bere artean On Fakundo´k.

Urrengo eguneko bazkal-ordua eldu zanean, olan agurtu eban On Fakundo´k bere ama. Ama, gaur bazkari ona, ez?.

Iñotso txarrik ipiñi dautsut ala, seme? Diñotso maitasunez ama´k.

Ez baña... Mendi-aldeko Patxo´k atso erbi bat bialdu dautsut lez....

Gurera erbia bialdu?. Ez da gorantzirik be. Niri behintzat.

Ez da izango?.

Diñotsudana seme.

Niri adarra jo?. Ni betilunez jarri?. Ez ekian zetara jo gure abadea´k. Ludi onetan eroapena gauzarik bearrenetarikoa dalakoan ogeratu zan gizajoa bazkal-ostekoa egiten.

Andik egun barru, barriro joan zan On Fakundo Mendi-aldeko lurraldeetara ta Patxo ikusi ebanean, esan eutson.

Lanean ez da , Patxo?.

Bai, on fakundo, ta erbia gozo egon zan?.
Erantsun eutson Patxo´k.

Ziztrin ori, gaur be adarra joteko asmoz?,
diñotso abadea´k.

Zer ba? Erbia ez zan eldu zuenganaño ala?.
Diño Patxo´k.

Ze erbi ta erbi-ondoko. Neuk neroan jan
gurea besterik ez zan sartu gure sutean.

Ba, nik bialdu neban ba erbia zure etxera.
Orko sasi artetik urten eban eta nik esan neu-

tson, Txotxo, joan zaitez abadegana. Guzurra
esan ba neutson ez dakit jauna.

On Fakundo´k izan eban zati baterako barrea,
Patxo´ren zitalkeri au entzun ebanean.

Erbi zein untxi, azkaritxu bat emon bearko
daustazu behintzat gaur, adar-jote onen ordezt,
esan eutson abadea´k.

OTAZUA´TAR BENITO

AFRIKA´KO IPUIN/ALEGIAK

4.-LUKIA TA ARRANOA

Ona emen Afrika´ko jakituriak agertzen dauan
beste ipuin bat. Artu daigun bakoitxak damos-
kun irakatsia.

Lagun aundiak ziran lukia ta arranoa eta
ekatzen ebena alkarrari emoteko zin eginda
egozan.

Bein baten lukiak bere semeari esan eutson:

– Zoaz eta esan arranoari aitag luma bat bear
daua jaurtikia apaintzeko.

Arin joan zan semea, baiña bide-erdian beste
pizti bat aurkitu eban okerra zana, Karematoko.
Onek itandu eutson nora joian.

– Arranoa ikustera noa, aitarentzat luma bat
eskatzeko.

– Zuk txarto ulertu dozu. Aitag luma guztiak
gura dauz.

Lukikumea zalantzan jarri zan, baiña arrano-
ari luma guztiak eskatu eutsozan.

Arranoa asarratu egin zan, baiña berbea
berba dala-ta emon eutsozan luma guztiak.

Lukiak semea ainbeste lumagaz ikusi eba-
nean, pentsau eban adiskidetasuna agertzenko
egiten ebala ori arranoak.

Arik egun batzutara arranoak semea bialdu
eban ule bat eskatzeko, belarriak garbitzeko bear
ebala-ta. Arranotxua bidez joiala , Karematoko
aurkitu eban eta onek esan eutson.

– Nora zoaz?

– Lukiaren etxera noa amarentzat ule baten
billa- erantzun eban arranotxuk.

– Txarto ulertu dozu. Amak narrua dana gura
dau.

Zalantzan jarri zan arranotxua, baiña joan
eta narrua dana eskatu eban eta lukiak emon
egin eutson. Arranotxuak berak kendu eutson
narrua.

Bata narru bagerik eta beste luma bagerik,
biak alkartu ziran egun baten eta laster ikusi
eben euren seme-alabak sartutako ziria. Eldu
ziran etxera eta biak zigortu ebezan umeak.
Oneik kolorga eta zazpuztuta, Karematoko´ri
irakatsi bat emotea erabagi eben, baiña errudun
au iges eginda egoan.

Biak ikasi eben auxe: Gurasoakaz fietan
ez dana, samintasunezko itxasoan itoko da
egunen baten.

OLAZAR´tar Martin´ek

XABIERRERAKO IBILALDIA

Negu azkenean Nafarroako bide guztiak Xabierera eramaten dute. Milaka gizon eta emakume joaten dira bederatzi urreneko egunetan Sandu andien sorterria bisitatzen. Batzuk oinez, bertze batzuk ibilgailuetan asmo berdinekin, Sandu ibiltarien ondora. Aren gogotak eta asmoak berritzera. Antxe Txina zarra begi aurrean zuela itzeli zen mutil nafarra, ez bait zuen bere biotzeko sugarretan mugarik ezagutu. Xabierren aurpegia erri guztientzat elkartasun muga gabekoaren amets argi bat duela dirudi, Leyreko mendi zuriak ematen duten antzera.

Argi eder orren dizdira artean eltzen da Xabier ainbertze maite izan zituen eguzkialdeko Txina andia, Japon eta India. Oiu ori entzungo zer elkar maitatzeko, laguntzeko, muga gabeko elkartasunerako deituz.

Nafarroako toki guzietatik etorritakoak ziren erromesak, milaka bildu zituen gazteluak. Gurutze Gorriak 451 gizonetzko eta 393 emakume zaindu zituen.

Aurtengo martxoaren 2 eta 9an egin dira Xabierrerako ibilaldiak. Iruñeko artzapezpikuak lau izkuntzetan eman zuen ongi etorria, (gastelera, euskara, ingelera eta frantsesa), Iru aldiz mintzatu zen euskaraz, "saiatzen naiz ikasten eliza baten irudia zirela, besarkada bat ematen ziela gaztelu azpian zeudenei, eta gero eta geiago maitatzen zituela nafarrak. "zorian-tsu izan nai baduzue" zion "bakoitzak duzuen bokazioari jarraitu bear diozue". Baita ere Xabierrengandik bortz ikasgai ikasi daitezkeela.

Bizia, Jaungoikoaren eskuetan jarri bear dela eta irakatsi izugula zein den jaraitu bear den bidea ori lortzeko; otoitza egin bear dela mundu paketsu bat izateko. Bigarrena, Xabierrek edaten zuen sakramentuetako iturrietatik edan bear dela. Laugarrena, eliza maitatzea ama balitzake bezala. Bostgarrena, justizia sustatu bear dela, sanduak egin zuen bezala.

Ona emen Xabierren omenez norbaitek egingadako bertso politak:

Gora, gora Saindua andia
otoi begira Euskal Herria

Aitaz garaztarra, amaz baztandarra
Euskaldun garbia zen eta Nafartarra.

Artze onekoa, Parisera joanik
Irakasle andi jarri zen gazterik.

Mundun lausenguz, zuen lilurat
Enekok berriz, jaunari biurtu

Apezturik joanik, toki basetara
Miliium pagano, an bataiatzerat

Arimen ondotik, arimak zeraman
Gabaz onru luzez, zegoen otoitzetan

Itsas lurrak menenko zituen
Erial sendatzen, ilek ere pizten

Ez da inor izan Desusen geroztik
Xabierren aala, agertu duenik

S. Franzizko saindu ain goresgarria
Benedika ezazu Euskal-Erria.

Xole Erbiti

ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK**

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguazu!



Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €.

Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Zazpi erruak

	2		9		8		1	
		4					9	
	8		3	5	1			2
1			8		5			6
				1				
7			2		6			4
	7		1	2	3			8
		1					2	
	3		4		9			6

1	6	7	9	8	4	5	3	2
3	4	2	6	7	5	1	9	8
9	8	5	3	2	6	1	7	4
4	9	1	6	3	8	2	5	7
2	5	8	7	1	3	6	4	9
6	7	3	5	4	9	8	2	1
8	2	9	8	7	1	4	6	5
7	3	6	5	1	9	8	4	2
8	3	9	2	7	6	1	4	5
5	1	7	4	6	9	8	2	3

ARPIDETZEKO TXARTELA

Zer Aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordain-txartela,
 an daukadan

..... azenbakidun diru-kontura.

Zabaldu dagizun "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi besti bat!

BBK

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.

48001 BILBAO

1,20 euro

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilero,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²